

Goi
Mailako

Arte
plastikoak
eta diseinua

Elkarreragileko produktu grafikoari laguntzeko teknikaria



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA

Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza

El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

Elkarreragileko produktu grafikoari laguntzeko teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Heziketa ziklo hau amaitzen duzunean, honako lanbide-jarduera hauetan aritzeko kualifikatuta egonen zara:

- Ekipamendu informatikoak erabiltzeko gai izatea eta web edizioaren prozesuarekin lotutako berariazko programak menderatzea, bai web-guneak egitean, bai webgune horiek osatzen dituzten elementuak produzitzean.
- Web edizioko programak erabiltzeko gai izatea, bai eta multimedia elementuak tratatzeko eta konfiguratzeko aukera ematen duten aplikazioak ere.
- Web komunikazioko produktu grafikoaren edizioaren eta produkzioaren oinarrian dauden edizio prozesua eta programazio lengoaiak ezagutzea.
- Webguneetako multimedia elementu grafikoak egitea eta editatzea, gaur egungo erabilgarritasun eta irisgarritasun estandarrekin bat.
- Webak editatzeko eta egiteko prozesuak ezagutzea, eta lanbidearekin lotutako zereginak optimizatzeko aukera ematen duten tresnak trebezia erabiltzea.
- Sarerako proiektu grafikoak egiteko argibide teknikoak ulertzea, interpretatzea eta gauzatzea.
- Web edizioari buruzko programak trebezia erabiltzea, bai eta testuak, marrazkiak eta irudiak tratatzearekin lotutako aplikazioak ere.
- Produktu grafiko interaktibo baten proiektuaren garapenean sortutako eta emandako informazioa antolatzen, banatzen eta biltzen jakitea.
- Zorroztasunez eta sentsibilitatez interpretatzea proiektuari buruz ematen zaion informazioa (grafikoa, idatzia nahiz ahozkoa), informazio horrek web elementuak egiteko eta editatzeko prozesuekin zerikusia duenean.

- Web edizioaren eta sorkuntzaren prozesuko faseak ulertzea eta gauzatzeko prozeduretan laguntzea, proiektuaren argibideekin bat.
- Arazoak detektatzea, kalitate kontroleko zereginetan laguntzea eta dagozkion doikuntzak egitea produktu interaktiboak egiteko prozesuaren faseetan.
- Erabilitako materialen eta ekipamenduen zehaztapen teknikoak xehetasunez ezagutzea, eta horien aldizkako mantentze lan prebentiboa egiteko neurriak antolatzea.
- Web euskarrian dagoen komunikazio eta produkzio grafikoa erregulatzen duen araudia ezagutzea, bai eta lan inguruneko prebentzio eta babes neurriak ere.
- Web diseinuaren eta edizioaren arloan erabiltzen diren berariazko kontzeptuak eta lexikoa behar bezala ulertzea eta erabiltzea.

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional autonomo edo elkartu gisa eta besteren konturako langile gisa garatzen duzu zure jarduera, ikusmenezko komunikazioko produktu interaktiboak behar dituzten erakunde eta enpresa guztietan. Zure gaitasunak goragoko mailako profesional baten edo diziplina anitzeko lantalde baten aginduetara erabiltzen ahal dituzu, webguneen mantentze eta eguneratze lanak egiten eta multimedia elementuak produzitzen dituen teknikari gisa.



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional

Arte plastikoak eta diseinua

Zure jarduera sektore publikoan edo pribatuan gauzatzen duzu, ikusmeneko komunikazioarekin eta produktu interaktiboekin lotutako enpresetan: ikus-entzunezkoen sektorea; publizitate agentziak; multimedia enpresak; diseinu estudioak; enpresa edo organismo publikoen marketin, publizitate edo diseinu departamentuak; online argitalpenak.

Hauek dira arloko zeregin eta lanpostu garrantzitsuenak:

- Tratamendu informatikoa, testuak, irudiak eta web nahiz multimedia ediziorako beste elementu batzuk osatzea eta prestatzea.
- Multimedia elementuak produzitzea eta tratatzea.
- Web edizioko programen teknikaria.
- Komunikazio interaktiboko proiektuak interpretatzea eta haietako elementu grafikoak egitea.
- Webguneetarako eta beste zenbait eratako produktu grafikoetarako multimedia elementuak lortzea eta zuzentzea, eta haien tratamendua egitea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Diseinu grafikoaren oinarriak.
- Tipografia.
- Baliabide informatikoak.
- Komunikazio grafikoa.
- Diseinu grafikoaren historia.
- Multimedia.
- Web edizioa.
- Lanerako prestakuntza eta orientabidea.
- Amaierako lana-
- Enpresa, estudio edo lantegietako prestakuntza praktikoaren fasea.